14 de febrero de 2026

# Noticias e informaciones de interés

## MANIFESTACIONES DEL MPEH LOS DÍAS 21 Y 23 POR LA REVALORIZACIÓN AUTOMÁTICA E INMEDIATA DE LAS PENSIONES

Pasan las semanas y aún no sabemos cuándo se van a tratar y votar en el Congreso de Diputados el decreto de revalorización de las pensiones y el del llamado escudo social. Por los datos que disponemos ese debate y votación puede dilatarse hasta casi dos semanas.

Es algo injustificable que a mediados de febrero aún no sepamos cómo van a quedar nuestras pensiones en el año 2026. Lo cual está provocando, como es natural y lógico, que muchos pensionistas estén preocupados y enfadados.

Para el Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria no se puede andar jugando con las pensiones, tal como sucedió a inicios del año pasado y se está repitiendo éste, y por ello exigimos la revalorización automática de las pensiones desde el 1 de enero de cada año.




Con ese motivo hemos convocado manifestaciones el sábado día 21 en Bilbao (17:30 plaza Elíptica) y en Donostia (12:00 Boulevard). Y el lunes día 23 en Gasteiz (12:00 plaza Nueva)) y en Iruña (12:00 plaza del Ayuntamiento). Asimismo, el lunes 23, en las 80 localidades de Hego Euskal Herria donde se llevan a cabo concentraciones se destacará la importancia de esa demanda, que no admite dilación.

Como siempre, si no nos hacemos oír y con fuerza en la calle, los gobiernos y las instituciones no nos hacen mucho caso. Por ese motivo es sumamente importante la participación lo más amplia posible en estas manifestaciones, así como en todas en las concentraciones que se realicen el lunes, para que este problema sea resuelto de inmediato.

Pero también pondremos de manifiesto que no estamos satisfechos con el decreto de pensiones que previsiblemente se va a aprobar y continuaremos exigiendo, entre otras medidas: a) La revalorización automática de las pensiones en función del incremento real del coste de la vida. b) El restablecimiento de la paga de final de año (la paguilla) para compensar la pérdida anual del poder adquisitivo de las pensiones. c) La equiparación de la pensión mínima al salario mínimo interprofesional (SMI). d) Que en Hego Euskal Herria se complementen en la CAV y Navarra los ingresos de las personas pensionistas para equipararse con el SMI.




El rincón de Tasio

## SUMA Y SIGUE: LA GRAN BANCA DEL ESTADO ESPAÑOL GANA 34.445 MILLONES DE EUROS EN 2025 Y LOGRA UN NUEVO RÉCORD

Banco Santander, BBVA, CaixaBank, Banco Sabadell, Bankinter y Unicaja sumaron en conjunto en 2025 unos beneficios netos de 34.445 millones de euros, un 7 % más que en 2024.

Banco de Santander cerró sus cuentas de 2025 con un beneficio declarado de 14.101 millones de euros, un 12 % más que en 2024. BBVA lo hizo con 10.511 millones, un récord en su historia, un 4,5 % más que el año anterior. CaixaBank obtuvo 5.891 millones, un 1,8 % más. Sabadell ganó 1.775 millones de euros, un 2,8 % menos. Bankinter logró 1.535 millones de euros, un 12,9 % más. Y Unicaja cerró también su ejercicio con un beneficio de 632 millones de euros, con un crecimiento del 10,3 %.

Una vez más, una buena parte de sus beneficios de obtuvieron por los créditos hipotecarios a la vivienda y por el cobro de comisiones a las que estamos obligados por cualquier operación o intervención bancaria. Y al igual que otros grupos empresariales continúan obteniendo unos beneficios escandalosos




mientras que se oponen a mejorar salarios, pensiones y las condiciones de vida de sectores crecientes de la sociedad en situación de vulnerabilidad.

## REFLEXIONANDO SOBRE LOS CUIDADOS: ¿CÓMO TE CUIDAN?

Ese es el título de la Jornada que el Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria (MPEH) y la Federación de Asociaciones de Familiares de Personas Dependientes han organizado para el sábado 21 de febrero, de 10:00 a 13:00 en el Centro Municipal La Bolsa de Bilbao.

Desde el Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria, y, en especial, las mujeres pensionistas, llevan tiempo reflexionando sobre cómo queremos ser cuidadas y cuidar. La preocupación porque el cuidado sea público, universal y de calidad es compartida con la Federación de Asociaciones de Familiares de Personas Dependientes. Por eso se ha organizado esta Jornada.

En la primera parte, Enrique de la Peña Varona, miembro de Babestu, hablará del “Maltrato en Cuidados de Larga Duración”. Cómo definimos el maltrato, situación actual, obstáculos a la hora de denunciar el maltrato, papel de las instituciones, etc. Es una realidad oculta a la que es necesario responder y la exposición finalizará con una serie de propuestas, para abrir el debate entre todas y todos.

En la segunda parte, el Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria y la Federación de Familiares de Personas Dependientes expondrán sus principales




retos o preocupaciones en torno al actual sistema de cuidados y se debatirá conjuntamente sobre los temas planteados.

Es la primera Jornada y se espera que sea el inicio para acordar entre las dos organizaciones cuáles son las principales reivindicaciones y qué hacer para impulsar la lucha por un sistema de cuidados público, universal y de calidad. Es necesario poner el cuidado en el centro y se anima a participar en la Jornada del 21 de febrero.

## INFORMACIÓN SOBRE LAS REGULARIZACIONES DE LAS PENSIONES A LAS PERSONAS MUTUALISTAS

Tal como se informó en el boletín del pasado 19 de enero y a petición del Departamento de Hacienda de la DFB/BFA, una delegación del MPB fue informada por la Diputada Foral, Sra. Itxaso Berrojalbiz acompañada por el Director General de Hacienda, Sr. Antonio Pérez, del acuerdo al que había llegado el mencionado Departamento con el INSS del Territorio Histórico de Bizkaia. El acuerdo consistía en adecuar, a partir del mes de enero de este año, las retenciones a cuenta del IRPF a las características particulares de las personas pensionistas que fueron reconocidas como beneficiarias de una deducción en la base imponible de este impuesto, como consecuencia de las aportaciones realizadas a las mutualidades laborales antes del fin del año 1978. De este modo estas personas pensionistas "mutualistas" verían incrementada su percepción líquida como resultado de la disminución de la retención practicada.

Sin embargo, tras recibir los ingresos correspondientes a ese mes y, posteriormente, con la recepción de las cartas de liquidación de las revalorizaciones aplicables a 2026, se pudo comprobar que esa disminución en las retenciones no se había realizado según lo previsto y anunciado.

Una parte de las personas pensionistas mutualistas vieron disminuida su retención como consecuencia de la aplicación de un tipo inferior. Efectivamente, este tipo coincidía con el correspondiente a la pensión minorada por el porcentaje ya establecido en los ejercicios anteriores para el cálculo de la "cantidad no integrada", tal como figuraba en la declaración de la renta del ejercicio 2024. Sin embargo, al calcular la retención, el tipo se aplicó a la pensión íntegra sin tener en cuenta la reducción por mutualidades. La otra parte de las personas pensionistas mutualistas no afectadas por la disminución del tipo de retención recibieron su liquidación únicamente con la subida del 2,7%.

Ante esta situación, las personas de la delegación del MPB plantearon al Departamento de Hacienda la irregular situación que, en su opinión, se estaba



produciendo. Consecuencia de esa interlocución, el director general Sr. Pérez Delgado nos ha confirmado, vía e-mail "que la Seguridad Social ha tenido en cuenta los coeficientes reductores para calcular el tipo de retención correcto, pero ese tipo de retención lo han aplicado sobre la total pensión percibida, no sobre la parte que tributa", por lo que se habían puesto en contacto de nuevo con la Seguridad Social para trasladarles que la retención debe aplicarse solo sobre la parte de la pensión que tributa.

Dadas las fechas, parece que en el mes de febrero no se producirá la corrección del error pero que, en los próximos días, esperan recibir información sobre cómo va a corregir el INSS este error, lo que nos trasladarán tan pronto lo conozcan.

## BUENAS NOTICIAS EN EL PIRINEO NAVARRO: LA RESIDENCIA DE MAYORES DE ERRO NO SE CERRARÁ

Ocho entidades locales: valles de Erro, Esteribar, Artzibar y Aezkoa, junto con los ayuntamientos de Luzaide, Auritz, Orreaga y Orotz/Betelu logran un acuerdo para evitar el cierre de la residencia de Erro y con ello se abre una nueva etapa de gestión en la que se prevé la implicación activa del Gobierno de Navarra.

El acuerdo se ha cerrado con la empresa Planiger S.L. (Amavir), que hasta ahora ejercía como accionista mayoritaria a través de un 64% de acciones y el 36% restante de los municipios, abriéndose así la puerta a una nueva etapa en la gestión de la residencia.




Estas entidades locales vinculadas a la residencia de personas mayores Amavir Ibañeta, situada en la localidad de Erro, con el acuerdo alcanzado evitarán el cierre del centro garantizando su continuidad y de esta manera ponen fin a varios meses de preocupación e incertidumbre en toda la comarca.

La posibilidad de cierre se puso de manifiesto el pasado mes con una pancarta colgada en el propio centro con el mensaje "No al cierre de la residencia", pues la empresa Planiger S.L. ya anunció su intención de abandonar el proyecto en marzo por motivos de rentabilidad y desde entonces, las casi cuarenta trabajadoras y trabajadores, las familias y las cerca de medio centenar de personas residentes han vivido meses de mucha preocupación, ya que, con la retirada del accionista mayoritario, la residencia estaba abocada a su clausura y la responsabilidad última recaía sobre las ocho entidades.

La confirmación de que la gestión quedará en manos locales ha sido recibida en la zona con alivio y emoción. Aunque todavía queda por definir el modelo definitivo de gestión y los posibles nuevos servicios que pueda albergar la residencia en el futuro, el acuerdo alcanzado ya supone una victoria para el territorio.

Según dieron a conocer el miércoles las entidades locales, "todas aquellas que contaban con participación en la residencia pasarán a conformar el nuevo consejo de administración", asumiendo de manera conjunta la responsabilidad de la gestión.

Dijeron que el acuerdo se formalizará en las próximas semanas y permitirá no solo mantener abierto el centro, sino también iniciar una "reflexión profunda sobre el modelo de cuidados" que necesita un territorio rural como éste, así como entablar un "diálogo serio y responsable con el Gobierno de Navarra acerca de las medidas necesarias que debe implantar para sostener estos recursos en zonas rurales y en riesgo de despoblación".

## CELEBRACIÓN POR LA PARALIZACIÓN DEL PROYECTO GUGGENHEIM EN URDAIBAI

El pasado sábado la plataforma Guggenheim Urdaibai Stop celebró una jornada festiva en Gernika por la paralización en diciembre del proyecto del nuevo museo Guggenheim. Fue una jornada

plena de actividades populares: mercado solidario, comida popular, actividades para niños y la formación de un mosaico que reunió a más de 1.000 personas.

Su objetivo era celebrar la victoria de la paralización, reconocer y destacar la fuerza ciudadana y popular que había hecho posible esa victoria y mirar hacia el futuro. Recordaron que comenzaron a movilizarse en Busturialdea pero que poco a poco se fue extendiendo a todos los rincones de Euskal Herria. Sin duda este triunfo constituye una referencia social importante de que cuando la ciudadanía se moviliza con fuerza y tesón se pueden lograr victorias ante imposiciones institucionales o de otro tipo que son contrarias a las demandas o intereses populares.

El Movimiento de Pensionistas de Busturialdea y de Euskal Herria ha tomado parte activa en buena parte de las iniciativas de la plataforma Guggenheim Urdaibai Stop, y el sábado fue invitado a tomar parte en las actividades que se iban a llevar a cabo. Allí tuvieron ocasión de verse y saludarse un buen




número de compañeros/as del movimiento de pensionistas.

## MANIFESTACIÓN PENSIONISTA EN DURANGO HASTA EL CENTRO DE SALUD DE LANDAKO

El Movimiento de Pensionistas de Durango llevó a cabo el lunes una manifestación, con la participación de 90 pensionistas, que recorrió algunas calles de la localidad y concluyó ante el Centro de Salud de Landako para denunciar el declive de la Atención Primaria, la falta de coordinación entre las áreas de salud y cuidados en Osakidetza, y exigir:

- Refuerzo de la Atención Primaria de Osakidetza en ambulatorios y centros de salud, porque es fundamental para el seguimiento sanitario.
- Garantizar la estabilidad del personal, y reducir a lo imprescindible las sustituciones, para garantizar la atención presencial en los centros de salud.
- Aumentar los recursos materiales y humanos médicos, enfermeras, etc. para reducir los tiempos de obtención de listas de esperas y citas.
- Disponer de ambulancia medicalizada permanente en Durango.
- Creación de un nuevo sistema público de cuidados universal y comunitario
- Coordinación eficaz entre Osakidetza y los servicios sociales (cuidados y dependencia) para dar respuesta integral a las necesidades socio sanitarias de las personas.




Asimismo, manifestaron que defienden un sistema sanitario, universal y de calidad, y denunciaron las políticas de recortes y desmantelamiento.

## SORTEO DE LA RIFA DEL MOVIMIENTO DE PENSIONISTAS DE EUSKAL HERRIA

El próximo sábado día 21 se sorteará el primer premio de la rifa, que constará de una estancia del 12/6/26 al 14/6/26 para dos personas en el Hotel Talasoterapia Zelai de Zumaia. El número premiado se corresponderá con los cuatro últimos dígitos del sorteo de la ONCE de ese día.

Y el sorteo del segundo premio, que constará de una estancia del 23/5/26 al 24/5/26 para dos personas en el Hotel Eguren Ugarte de Laguardia, se llevará a cabo el sábado 28 y se corresponderá con los cuatro últimos dígitos del sorteo de la ONCE de ese día.

2026eko otsailaren 14a

# Albiste eta informazio interesgarriak

## EHPM-REN MANIFESTAZIOAK HILAREN 21EAN ETA 23AN, PENTSIOEN BALIO-HANDITZE AUTOMATIKOA ETA BEREHALAKOAREN ALDE

Denbora aurrera doa, eta oraindik ez dakigu noiz aztertuko eta bozkatuko diren Diputatuen Kongresuan pentsioen zenbatekoa handitzeko dekretua eta gizarte-ezkutua deiturikoa. Eskura ditugun datuen arabera, eztabaida eta bozketa hori ia bi astera arte atzera daiteke.

Justifikaezina da otsailaren erdialdean oraindik ez jakitea 2026an gure pentsioak nola geratuko diren. Horrek, jakina eta logikoa denez, pentsiodun asko kezkatuta eta haserre egotea eragiten du.




Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduarentzat (EHPM) ezin da pentsioekin jolasten ibili, joan den urtearen hasieran gertatu zen eta aurten berriro errepikatzen ari den bezala, eta horregatik urtero urtarrilaren 1etik aurrera pentsioen balio-handitze automatikoa eskatzen dugu.

Hori dela eta, herrialdeko manifestazioak deitu ditugu datorren larunbatean, hilak 21, Bilbon (17:30, Plaza Eliptikoan) eta Donostian (12:00, Boulevarden); eta astelehenean, hilak 23, Gasteizen (12:00, Plaza Barria) eta Iruñean (12:00, Udaletxe plaza). Halaber, astelehenean, hilak 23, Hego Euskal Herriko 80 herrietan elkarretaratzeak egingo dira, eta eskari horren garrantzia nabarmenduko da, atzerapenik onartzen ez duena.

Beti bezala, kalean ez bagaude, eta indartsu, beraiek entzun gaitzaten, gobernuek eta erakundeek ez digute jaramon handirik egiten. Hori dela eta, oso garrantzitsua da manifestazio horietan ahalik eta parte-hartze handiena izatea, baita astelehenean egingo diren elkarretaratze guztietan ere, arazo hori berehala konpon dadin.

Baina, era berean, agerian utziko dugu ez gaudela pozik pentsioei buruz seguraski onartuko den dekretuarekin, eta, besteak beste, honako neurri hauek eskatzen jarraituko dugula: a) Pentsioen balioa automatikoki handitzea, bizitzaren benetako kostuaren igoeraren arabera; b) Urte amaierako ordainsaria (“paguilla” delakoa) berrezartzea, pentsioen erosteko ahalmenaren urteko galera konpentsatzeko; c) Gutxieneko pentsioa Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin (LGS) parekatzea; d) Bestalde, Hego Euskal Herrian, eskatzen dugu bai EAEn bai Nafarroan pentsiodunen diru-sarrerak LGSrekin parekatu arte osatzea,.

## BATU ETA SEGI: ESTATU ESPAINIARREKO BANKU HANDIEK 34.445 MILIOI EURO IRABAZI DITUZTE 2025EAN, ERREKOR BERRIA LORTUZ

Banco Santander, BBVA, CaixaBank, Banco Sabadell, Bankinter eta Unicajak guztira 34.445 milioi euroko mozkin garbiak izan zituzten 2025ean, 2024an baino % 7 gehiago.

Santanderrek 14.101 milioi euroko mozkin aitortuarekin itxi zituen 2025eko kontuak, 2024an baino % 12 gehiago. BBVAk 10.511 milioirekin egin zuen, bere historiako errekorra, aurreko urtean baino % 4,5 gehiago. CaixaBankek 5.891 milioi lortu zituen, % 1,8 gehiago. Sabadellek 1.775 milioi euro irabazi zituen, % 2,8 gutxiago. Bankinterrek 1.535 milioi euro lortu zituen, % 12,9 gehiago. Unicajak ere 632 milioi euroko irabaziak izan zituen, % 10,3ko hazkundearekin.

Beste behin ere, etxebizitzarako hipoteka-kredituengatik eta edozein banku-eragiketagatik ordaindu beharreko komisioak kobratzeagatik lortu zituzten irabazien zati handi bat. Eta beste enpresa-talde batzuek bezala, eskandaluzko etekinak lortzen jarraitzen dute, zaurgarritasun-egoeran dauden gizarteko gero eta sektore handiagoen soldatak, pentsioak eta bizi-baldintzak hobetzearen aurka agertzen diren bitartean







Tasioren txokoa

## ZAINTZARI BURUZ HAUSNARTUZ: NOLA ZAINTZEN ZAITUZTE?

Hori da Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak (EHPM) eta Mendekotasuna duten Pertsonen Senideen Elkarteen Federazioak antolatu duten jardunaldiaren izenburua. Jardunaldia otsailaren 21ean, larunbata burutuko da, 10:00etatik 13:00etara, Bilboko La Bolsa Udal Zentroan.

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak (EHPM), eta, bereziki, EHPMko emakume pentsiodunek, denbora daramate hausnartzen nola nahi dugun zainduak izatea eta nola zaindu nahi dugun. Zaintza publikoa, unibertsala eta kalitatezkoa izateko kezka Mendekotasuna duten Pertsonen Senideen Elkarteen Federazioarekin partekatzen da. Horregatik antolatu da jardunaldi hau.

Lehen atalean, Enrique de la Peña Varona, *Babestu* elkarteko kideak, “Tratu txarrak iraupen luzeko



zainketetan" gaiari buruz hitz egingo du. Nola definitzen ditugu tratu txarrak, egungo egoera, tratu txarrak salatzeko oztopoak, erakundeen zeregina, etab. Errealitate ezkutua da, eta beharrezkoa da horri erantzutea, eta hitzartzea proposamen batzuekin amaituko da, denon arteko eztabaida zabaltzeko.

Bigarren atalean, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak eta Mendekotasuna duten Pertsonen Senideen Federazioak gaur egungo zaintza-sistemaren inguruan dituzten erronka edo kezka nagusiak azalduko dituzte, eta guztion artean eztabaidatuko dira planteatutako gaiak.

Lehen jardunaldia da eta espero dugu abiapuntua izatea bi elkarteen artean adosteko zeintzuk diren aldarrikapen nagusiak eta nola egin zaintza-sistema publiko, unibertsal eta kalitatezkoaren aldeko borroka bultzatzeko. Zaintza erdigunera ekarri behar da, eta animatu otsailaren 21eko jardunaldian parte-hartzen.

## MUTUALISTEI EGIN BEHAR ZAIEN PENTSIOEN ERREGULARIZAZIOEI BURUZKO INFORMAZIOA

Joan den urtarrilaren 19ko buletinean jakinarazi zen bezala, eta BFAko Ogasun Sailak eskatuta, Itxaso Berrojalbiz foru diputatua, Antonio Pérez Ogasuneko zuzendari nagusiak lagunduta, Bizkaiko Pentsiodunen Mugimenduaren (BPM) ordezkaritza batekin bildu zen. Bertan, Ogasun Sailak Bizkaiko Lurralde Historikoko Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin (GSIN) lortutako akordioaren berri eman zioten. Akordio horren arabera, aurtengo urtarriletik aurrera, PFEZren konturako atxikipenak egokituko dira, 1978. urtea amaitu baino lehen lan-mutualitateei egindako ekarpenen ondorioz, PFEZren zerga-oinarrian kenkari baten onuradun gisa aitortuak izan ziren pentsiodunen ezaugarri berezietara. Horrela, pentsiodun "mutualista" horiek, egindako atxikipenaren murrizketaren ondorioz, hileko jasoko duten zenbateko likidoa handitu egingo litzateke.



Hala ere, urtarrileko diru-sarrerak ikusita, eta, geroago, 2026an aplikatzekoak ziren errebalorizazioen likidazio-gutunak jaso ondoren, atxikipenen murrizketa hori ez zela aurreikusi eta iragarri bezala egin egiaztatu ahal izan zen.

Egia da pentsiodun mutualisten zati bati murriztu egin zitzaiola atxikipena, tipo txikiagoa aplikatu ziotelako. Hain zuzen ere, tipo hori zegokion aurreko ekitaldietan "integratu gabeko zenbatekoa" kalkulatzeko ezarritako ehunekoaren bidez murriztutako pentsioari, 2024ko ekitaldiko errenta-aitorpenean agertzen zen bezala. Hala ere, atxikipena kalkulatzerakoan, tipoa pentsio osoari aplikatu zitzaion, mutualitateengatiko murrizketa kontuan hartu gabe. Atxikipen-tipoaren jaitsierak eragiten ez zien pentsiodun mutualisten beste zatiak % 2,7ko igoerarekin soilik jaso zuen likidazioa.

Egoera horren aurrean, BPMren ordezkariek Ogasun Sailari azaldu zioten, bere ustez, gertatzen ari zen egoera irregularra. Elkarrizketa horren ondorioz, Pérez Delgado zuzendari nagusiak posta elektronikoz baieztatu digunez, "Gizarte Segurantzak koefiziente murriztaileak hartu ditu kontuan atxikipen-tipo zuzena kalkulatzeko, baina atxikipen-tipo hori pentsio osoari aplikatu diote, ez pentsio murriztuari". Hori dela eta, Gizarte Segurantzarekin harremanetan jarri ziren berriro, atxikipena zergapetuta dagoen pentsioaren zatiari bakarrik aplikatu behar diotela jakinarazteko.

Datak ikusita, badirudi otsailean ez dela akatsa zuzenduko, baina datozen egunetan GSINak akats hori nola zuzenduko duenari buruzko informazioa jasotzea espero dute, eta hori jaso bezain laster jakinaraziko digute.

## BERRI ONAK NAFARROAKO PIRINIOETAN: ERROKO ADINEKOEN EGOITZA EZ DA ITXIKO

Zortzi toki entitatek (Erro, Esteribar, Artzibar eta Aezkoa ibarrak, Luzaide, Auritz, Orreaga eta Orotz/Beteluko udalekin batera), akordio bat lortu dute Erroko egoitza itxi ez dadin, eta horrela kudeaketa etapa berri bat ireki da, Nafarroako Gobernuaren inplikazio aktiboa aurreikusten duena.

Akordioa Planiger S.L. (Amavir) enpresarekin itxi da, orain arte akziodun nagusi gisa ziharduena akzioen %64ren jabe izanda, udalerriek gainerako %36ren jabe zirelarik; horrela, egoitzaren kudeaketan etapa berri bati ateak ireki zitzaizkion.

Erron dagoen Amavir Ibañeta adinekoen egoitzari lotutako toki-erakunde horiek, lortutako akordioari esker, zentroa ixtea saihestuko dute, haren jarraipena bermatuz, eta, horrela, eskualde osoan kezkaz eta ziurgabetasunez betetako hainbat hilabeteri amaiera emango diete.

Ixteko aukera joan den hilabetean jarri zen agerian, zentroan bertan "Egoitza ixteari. EZ" zioen pankarta bat eskegita zegoela. Izan ere, Planiger S.L. enpresak martxoan iragarri zuen proiektua bertan behera uzteko asmoa zuela errentagarritasun arrazoiengatik, eta ordutik, ia 40 langileek, familiek eta 50 inguru egoiliarrek kezka handiko hilabeteak bizi izan dituzte; izan ere, akziodun nagusia erretiratzean, egoitza itxi egin behar zuten, eta azken erantzukizuna zortzi erakundeena zen.




Kudeaketa tokiko erakundeen esku geratuko dela baieztatzea lasaitasunez eta emozioz hartu dute zonaldean. Nahiz eta oraindik definitu gabe dagoen behin betiko kudeaketa-eredua eta etorkizunean egoitzak har ditzakeen zerbitzu berriak, lortutako akordioa garaipena da lurraldearentzat.

Toki entitateek asteazkenean jakitera eman zutenez, "egoitzaren partaidetza zuten guztiak administrazio kontseilu berria osatzera pasako dira", kudeaketaren ardura elkarrekin hartuz.

Akordioa datozen asteetan formalizatuko dela esan zuten, eta zentroa irekita mantentzeaz gain, horrelako landa-lurralde batek behar duen "zaintza-ereduari buruzko hausnarketa sakona" hastea ahalbidetuko duela, baita "Nafarroako Gobernuarekin elkarrizketa serio eta arduratsua" abiaraztea ere, "landa-eremuetan eta despopulazio-arriskuan dauden eremuetan baliabide horiei eusteko ezarri behar diren neurriei buruz".

## *GUGGENHEIM URDAIBAI* PROIEKTUA GELDITU DELAKO OSPAKIZUNA

Joan den larunbatean, *Guggenheim Urdaibai Stop* plataformak jai-eguna ospatu zuen Gernikan, abenduan Guggenheim museo berriaren proiektua gelditu zelako. Ekitaldi herrikoiez beteriko eguna izan zen: azoka solidarioa, bazkari herrikoia, umeentzako jarduerak eta 1.000 lagunetik gora bildu zituen mosaiko baten eraketa.

Helburua zen gelditzearen garaipena ospatzea, garaipen hori posible egin zuen herritarren eta herritarren indarra aitortzea eta




nabarmentzea, eta etorkizunera begiratzea. Busturialdean mobilizatzen hasi zirela gogoratu

zuten, baina pixkanaka Euskal Herriko txoko guztietara zabaldu zela. Zalantzarik gabe, garaipen hori erreferentzia sozial garrantzitsua da; izan ere, herritarrak indarrez eta adorez mobilizatzen direnean, garaipenak lor daitezke herritarren eskaeren edo interesen aurkakoak diren inposaketa instituzionalen edo bestelakoen aurrean.

Busturialdeko eta Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak aktiboki parte hartu du *Guggenheim Urdaibai Stop* plataformaren ekimenetan, eta larunbatean egin behar ziren jardueretan parte hartzera gonbidatua izan zen. Bertan elkar ikusi eta elkar agurtzeko aukera izan zuten pentsiodunen mugimenduko kide askok.

## PENTSIODUNEN MANIFESTAZIOA DURANGON, LANDAKOKO OSASUN ZENTRORAINO

Durangoko Pentsiodunen Mugimenduak manifestazio bat egin zuen astelehenean, 90 pentsiodunen parte-hartzearekin. Manifestazioa herriko zenbait kaletan zehar ibili zen, eta Landakoko Osasun Zentroaren aurrean amaitu zen, Lehen Mailako Arretaren gainbehera salatzeko,




Osakidetzako osasun- eta zaintza-arloen arteko koordinaziorik eza salatzeko eta honako hauek eskatzeko:

- Osakidetzako Lehen Mailako Arreta indartzea anbulatorioetan eta osasun-zentroetan, funtsezkoa baita jarraipen sanitarioa egiteko.
- Langileen egonkortasuna bermatzea, eta ordezkapenak ezinbestekora murriztea, osasun-zentroetan aurrez aurreko arreta berreskuratzeko eta bermatzeko.
- Medikuen, erizainen eta abarren giza baliabideak eta baliabide materialak handitzea, itxarote-zerrendak eta hitzorduak lortzeko denborak murrizteko.
- Durangon anbulantzia medikalizatu iraunkorra izatea
- Zaintza unibertsal eta komunitarioko sistema publiko berri bat sortzea
- Koordinazio eraginkorra Osakidetzaren eta gizarte-zerbitzuen artean (zaintza eta mendekotasuna), pertsonen behar soziosanitarioei erantzun integrala emateko.

Era berean, osasun sistema unibertsala eta kalitatezkoa defendatzen dutela adierazi zuten, eta murrizketa eta desegite politikak salatu zituzten.

## EUSKAL HERRIKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUAREN ZOZKETA

Datorren larunbatean, hilak 21, zozketatuko da Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak antolatutako zozketako lehen saria: Zumaiako Talasoterapia Zelai hotelean, bi lagunentzako egonaldia, 26/6/12tik 26/6/14ra. Hilaren 21ean, ONCEren zozketan sarituriko zenbakiaren azken lau digituek osaturiko zenbakiak jasoko du lehen saria.

Eta bigarren sariaren zozketa, hilaren 28an izango da eta egun horretako ONCEren zozketan sarituriko zenbakiaren azken lau digituek osaturiko zenbakiak jasoko du bigarren saria: Biasteriko Eguren Ugarte hotelean bi lagunentzako egonaldia, 26/5/23tik 26/5/24.